a.	normalean ibilgailu astunek erabiltzen dutena da.
b.	normalean ibilgailu astunek erabiltzen ez dutena da.
c.	12 tona BGM baino gutxiagoko ibilgailuetan soilik erabiltzen da.
d.	abiadura-mugagailuaren erabilerarekin zuzenean lotuta dago.

54.	El sistema neumático de frenado:
a.	es el que habitualmente utilizan los vehículos pesados.
b.	no es el que utilizan los vehículos pesados.
c.	únicamente se utiliza en vehículos de menos de 12 toneladas de MMA.
d.	está directamente relacionado con el uso del limitador de velocidad.



Data / Fecha: 2021-09-24

Bidaiariak / Viajeros: B

55. Nahitaezkoa al da takografo analogikoek elikadura mozketak erregistratzea?	
a.	Ez, inoiz ere ez.
b.	Bai, takografo analogiko guztietan.
c.	Bai, baina sentsorearen informazioa elektronikoki jasotzen duten takografo analogikoetan bakarrik.
d.	Bai, baina azken belaunaldiko modeloetan bakarrik.

55. ¿Es obligatorio que el tacógrafo analógico registre los cortes de alimentación?	
a.	No, en ningún caso.
b.	Sí, en todos los tacógrafos analógicos.
c.	Sí, pero sólo en los tacógrafos analógicos que reciben la información del sensor electrónicamente.
d.	Sí, pero sólo en los modelos de última generación.

56. Zerk eragin dezake logura esporadikoa gidatzean?	
a.	Loaren trastornoek.
b.	Otordu arinek.
c.	Nekeak.
d.	Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

56. ¿Qué causas pueden producir la somnolencia esporádica al conducir?	
a.	Los trastornos del sueño.
b.	Las comidas ligeras.
c.	La fatiga.
d.	Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

57. Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibil eta aseguruari buruzko legearen arabera, ibilgailuren bat asegururik gabe zirkulatzen ari bada, ibilgailua kokatzeko eta zigilatzeke erabakia hartu ahal izango da:	
a.	hilabetez.
b.	hiru hilabetez.
c.	urtebetez.
d.	hilabete batez edo hiru hilabetez, kasuen arabera.

57. Según la Ley de responsabilidad civil y seguro en la circulación de vehículos a motor, en caso de circular un vehículo sin seguro podrá acordarse el depósito y precinto del vehículo por un período de:	
a.	un mes.
b.	tres meses.
c.	un año.
d.	un mes, tres meses o un año según los casos.

58. 12,5J x 21.5, M 23,5 izendapena duen hagin batean, zer adierazten du «J» letrak?	
a.	Lau bideko balbula.
b.	Ardatzen arteko distantziari dagokio.
c.	Erlaitzaren forma.
d.	Tortsio zentrifugoari erresistentea dela adierazten du.

58. En una llanta con designación 12,5J x 21.5, M 23,5, ¿qué indica la letra "J"?	
a.	La válvula de cuatro vías.
b.	Se refiere a la distancia entre ejes.
c.	La forma de la pestaña.
d.	Indica que es resistente a la torsión centrífuga.

59. Markatu zein den baieztapen faltsua.	
a.	Pneumatikoaren errodamendu-banda da gurpil-azalean higadura handiena duen eremua.
b.	Pneumatikoaren errodamendu bandan marrazkia zizelkatzen da.
c.	Pneumatikoaren errodamendu bandaren marrazkiak ura hustea ahalbidetzen du.
d.	Pneumatikoaren sorbaldak orpoen alboko muturrak dira.

59. Señale la afirmación falsa.	
a.	La banda de rodamiento del neumático es la zona de mayor desgaste de la cubierta.
b.	En la banda de rodamiento del neumático se talla el dibujo.
c.	El dibujo de la banda de rodamiento del neumático hace posible la evacuación de agua.
d.	Los hombros del neumático son los extremos laterales de los talones.

60. Trafiko ekintza batengatik ezartzen den zigorra askatasuna kentzea izan dadin, ekintzak nolakoa izan behar du?	
a.	Delitu bat.
b.	Trafikoko arau-hauste administratibo larria.
c.	Falta bat.
d.	Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

60. Para que la pena impuesta por una acción de tráfico llegue a ser la privación de libertad, la acción debe ser:	
a.	un delito.
b.	una infracción administrativa de tráfico grave.
c.	una falta.
d.	Todas las respuestas anteriores son incorrectas.

61. Zer faktorek ez du eraginik erregaiaren kontsumoan?	
a.	Karterraren aireztapen motak: irekia edo itxia.
b.	Ibilgailuaren mantentzeak.
c.	Azeleragailuaren pedalaren posizioak.
d.	Abiadura-kaxan hautatu den martxen erlazioak.

61. ¿Qué factor no tiene influencia en el consumo de carburante?	
a.	El tipo de ventilación del cárter: abierta o cerrada.
b.	El mantenimiento del vehículo.
c.	La posición del pedal del acelerador.
d.	La relación de marchas seleccionada en la caja de velocidades.

62. Zer erresistentziak parte hartzen du ibilgailuen mugimenduan?	
a.	Erresistentzia aerodinamikoa, errodadurarekiko erresistentzia eta maldarekiko erresistentzia.
b.	Erresistentzia aerodinamikoa, errodadurarekiko erresistentzia eta transmisioaren erresistentzia.
c.	Erresistentzia aerodinamikoa, maldaren kontrako erresistentzia eta transmisioaren erresistentzia.
d.	Erresistentzia aerodinamikoa, errodadurarekiko erresistentzia, transmisioaren erresistentzia eta maldarekiko erresistentzia.

62. ¿Qué resistencias intervienen en el movimiento de los vehículos?	
a.	La resistencia aerodinámica, la resistencia a la rodadura y la resistencia a la pendiente.
b.	La resistencia aerodinámica, la resistencia a la rodadura y la resistencia de la transmisión.
c.	La resistencia aerodinámica, la resistencia a la pendiente y la resistencia de la transmisión.
d.	La resistencia aerodinámica, la resistencia a la rodadura, la resistencia de la transmisión y la resistencia a la pendiente.



Data / Fecha: 2021-09-24

Bidaiariak / Viajeros: B

63. Garraioaren sektoreko lan-istripu hauen artean, zein da forma ez traumatikoa duen istripua?	
a.	Gehiegizko esfortzua gehiegizko pisuak altxatzeagatik.
b.	Ibilgailuek harrapatzea.
c.	Erredurak.
d.	Gaixotasun kardiobaskularrak.

63. ¿Cuáles de los siguientes accidentes de trabajo en el sector del transporte están considerados como accidentes con forma no traumática?	
a.	Sobreesfuerzos por levantamiento de pesos excesivos.
b.	Atropellos por vehículos.
c.	Quemaduras.
d.	Enfermedades cardiovasculares.

64. Aukera hauetatik, zein ez da garraio-jarduerari lotuta dagoen arrisku bat?	
a.	Trafiko istripuak.
b.	Gai arriskutsuen garraioaren ondoriozko istripuak.
c.	Zamalanetako istripuak.
d.	Ibilgailu partikularren mantentze-lanetako istripuak.

64. De las siguientes opciones, ¿cuál no es un riesgo asociado a la actividad de transporte?	
a.	Accidentes de tráfico.
b.	Accidentes derivados del transporte de mercancías peligrosas.
c.	Accidentes en operaciones de carga y descarga.
d.	Accidentes en operaciones de mantenimiento de los vehículos particulares.

65. Zein balazta-zirkuitu abiarazten du ibilgailu bateko gidariak balazta-pedala zapaltzean?	
a.	Oineko frenoak.
b.	Esku frenoak.
c.	Disko-frenoak.
d.	Danbor-frenoak.

65. ¿Qué circuito de frenos es el que acciona el conductor de un vehículo al pisar el pedal de freno?	
a.	El freno de servicio.
b.	El freno de estacionamiento.
c.	El freno de disco.
d.	El freno de tambor.

66. Zer piezaren mugimendurekin doa sinkronizatuta balbulen mugimendua?	
a.	Gurpilen mugimendurekin.
b.	Birabarki-errodamenduen mugimendurekin.
c.	Enbragearen mugimendurekin.
d.	Pistoiaren mugimendurekin.

66. ¿Con el movimiento de qué piezas va sincronizado el movimiento de las válvulas?	
a.	Con el de las ruedas.
b.	Con el de los rodamientos del cigüeñal.
c.	Con el del embrague.
d.	Con el de los pistones.

67. Beharrezkoa da errektuntza-motor baten koipeztatze-sistemako olioak hoztea?	
a.	Bai, eta karteraren bidez bakarrik hoztu daiteke.
b.	Bai, eta beti ibilgailuaren kanpoaldean dagoen depositu baten bidez hozten da.
c.	Bai, karteraren bidez eta, automobil batzuetan, olioazko erradiadore baten bidez.
d.	Ez.

67. ¿Es necesario refrigerar el aceite del sistema de engrase de un motor de combustión?	
a.	Sí, y sólo se puede refrigerar mediante el cárter.
b.	Sí, y siempre se refrigera mediante un depósito situado en el exterior del vehículo.
c.	Sí, mediante el cárter y, en algunos automóviles, mediante un radiador de aceite.
d.	No.

68.	Erregai-kontsumoa optimizatzeko, honako hau gomendatzen da:
a.	Biraketa-kopurua handitzea.
b.	Azelerazio-kopurua murriztea.
c.	Azelerazio-kopurua handitzea.
d.	Bira-erregimena handitzea.

68.	Para optimizar el consumo de carburante se recomienda:
a.	aumentar el número de revoluciones.
b.	reducir el número de aceleraciones.
c.	aumentar el número de aceleraciones.
d.	aumentar el régimen de giro.

69.	Zer rol jokatzen du balaztak luzaroan jaitsi ondoren gurpil batek su hartzen duenean?
a.	Bero iturria da.
b.	Oxigeno-iturria da.
c.	Erregaia da.
d.	Kate-erreakzioa da.

69.	¿Qué papel desempeña el freno que, tras un descenso prolongado, provoca el incendio de una rueda?
a.	Es la fuente de calor.
b.	Es la fuente de oxígeno.
c.	Es la sustancia combustible.
d.	Es la reacción en cadena.

70.	Zeintzuk dira gure organismoak aprobetxa ditzakeen substantziak, bizitza ahalbidetzen dutenak eta elikagaietan aurkitzen direnak?
a.	Zuntza.
b.	Ura.
c.	Mantenugaiak.
d.	Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

70.	¿Cuáles son las sustancias aprovechables por nuestro organismo que hacen posible la vida y se encuentran en los alimentos?
a.	La fibra.
b.	El agua.
c.	Los nutrientes.
d.	Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

71.	Bidearen gainean karga bat erortzen bada, zer ez da egin behar?
a.	Zona behar bezala seinalizatu behar da.
b.	Arriskuaz abisatu gainerako erabiltzaileei.
c.	Errepideko laguntza-zerbitzuei berehala jakinaraztea.
d.	Eremua berehala utzi, kalte handiagoak saihesteko.

71.	Ante una situación como la caída de carga sobre la vía, ¿qué actuaciones no deben realizarse?
a.	Señalizar convenientemente la zona.
b.	Avisar del peligro al resto de usuarios de la vía.
c.	Dar cuenta inmediatamente a los servicios de auxilio en carretera.
d.	Abandonar la zona inmediatamente para evitar males mayores.

72.	Takografo digital batean, inprima daitezke gidari-txartelean erregistratutako intzidenteak eta akatsak?
a.	Bai, baina akatsak bakarrik.
b.	Ez, inola ere.
c.	Bai, baldin eta txartela takografoan sartuta badago.
d.	Bai, baina intzidenteak bakarrik.

72.	En un tacógrafo digital, ¿se pueden imprimir los incidentes y fallos registrados en la tarjeta de conductor?
a.	Sí, pero sólo los fallos.
b.	No, de ningún modo.
c.	Sí, siempre que esté insertada en el tacógrafo.
d.	Sí, pero sólo los incidentes.



Data / Fecha: 2021-09-24

Bidaiariak / Viajeros: B

73. Pneumatikoaren putze-presioa gomendatutakoa baino txikiagoa bada, ibilgailuak...
a. egonkortasuna irabazten du.
b. egonkortasun berari eusten dio.
c. egonkortasuna galtzen du.
d. erregai gutxiago kontsumitzen du.

73. Si la presión del inflado del neumático es inferior a la recomendada, el vehículo:
a. gana estabilidad.
b. mantiene la misma estabilidad.
c. pierde estabilidad.
d. consume menos carburante.

74. «Fading» efektua sortzen da:
a. zerbitzuko balazta gaizki erabiltzen denean.
b. pneumatikoa ez denean gai galtzadan dagoen ura ebakutzeko.
c. pneumatikoak espaloien zintarren kontra jotzen duenean alboetatik.
d. pneumatikoa higitu egiten denean nolabaiteko muga batetik aurrera.

74. El efecto "fading" se produce cuando:
a. se hace un mal uso del freno de servicio.
b. el neumático no es capaz de evacuar el agua que se encuentra en la calzada.
c. se roza lateralmente el neumático contra los bordillos de las aceras.
d. se desgasta el neumático a partir de un cierto límite.

75. Automobil baten enbragea aginte hidraulikokoa bada, mantentze-motaren bat behar du?
a. Bai, zirkuituan airea dagoela egiaztatu behar da.
b. Bai, deposituan likidoaren maila egiaztatu behar da.
c. Ez da beharrezkoa, kableen edo hagaxken bidez jarduten baitu.
d. Ez da beharrezkoa, ezin baita galtzerik egon.

75. Si el embrague de un automóvil es de mando hidráulico, ¿requiere algún tipo de mantenimiento?
a. Sí, comprobar la presión del aire en el circuito.
b. Sí, comprobar el nivel del líquido en el depósito.
c. No es necesario ya que actúa por medio de cables o varillas.
d. No es necesario ya que no puede haber pérdidas.

76. Enpresako bezeroekiko harremanetan, zer izan behar du kontuan gidariak?
a. Bezeroei tratu adeitsua eman behar die.
b. Modu pertsonalizatuan atenditu behar ditu.
c. Ez die informaziorik eman behar.
d. Tratu hotza eta urruna izan behar du haiekin.

76. En su contacto con los clientes de la empresa, ¿qué deberá tener en cuenta el conductor?
a. Dar un trato cortés a los clientes.
b. No atenderlos de forma personalizada.
c. No debe dar información.
d. Debe tener un trato frío y distante.

77.	Izotz gainean gidatzean, urtzeko unea da une arriskutsuena, arrazoi honengatik:
a.	irristatzeko arriskua handiagoa da.
b.	itsualdiak gerta daitezke.
c.	bide-marren ikuspena alda daiteke.
d.	Aukera gehiago dago «fading» efektua sortzeko.

77.	En la conducción sobre hielo, el momento más peligroso es el del deshielo porque:
a.	el peligro de deslizamiento es mayor.
b.	pueden producirse deslumbramientos.
c.	pueden alterarse la visibilidad de las marcas viales.
d.	hay más posibilidades de que se produzca el efecto "fading".

78.	Hegaxka neurtzailean olio-maila egiaztatzean ikusten bada ur-tantak daudela, zein izan daiteke arrazoa?
a.	Euri-ura karterrean sartu dela.
b.	Ez da ezer gertatzen, normala da.
c.	Komunikazioa dagoela karterraren eta haizetako-garbigailuaren deposituaren artean.
d.	Kulataren edo horren junturaren egoera txarragatik gertatzen da.

78.	Si al comprobar el nivel del aceite en la varilla medidora observa que existen gotas de agua, ¿cuál puede ser la causa?
a.	Que el agua de lluvia ha penetrado en el cárter.
b.	No sucede nada, es lo normal.
c.	Que hay una comunicación entre el cárter y el depósito del lavaparabrisas.
d.	Se debe al mal estado de la culata o de la junta de la misma.

79.	Ibilgailuentzako semaforo zirkular batean hondo zirkular beltz baten gainean gezi berde bat pizten bada, zer esan nahi du?
a.	Ibilgailuek ez dutela semaforoa pasa behar piztuta dagoen bitartean.
b.	Oinezkoak galtzada zeharkatzen has daitezkeela.
c.	Pasatzeko lehenetsua dagoela.
d.	Ibilgailuek har ditzaketela geziak adierazten dituen norabidea eta noranzkoa.

79.	Una flecha verde que se ilumina sobre un fondo circular negro en un semáforo circular para vehículos, ¿qué significa?
a.	Que los vehículos no deben rebasar el semáforo mientras permanezca encendido.
b.	Que los peatones pueden comenzar a atravesar la calzada.
c.	Que se tiene prioridad de paso.
d.	Que los vehículos pueden tomar la dirección y sentido indicados por la flecha.

80.	Errepideko ikuskapen batean, gidariak uko egiten badio kontrol-agenteari ibilgailuan nahitaez eraman behar dituen disko-diagramak entregatzeari, zer arau-hauste mota egiten ari da?
a.	Arau-hauste oso larria, obstrukzioagatik.
b.	Arau-hauste arina.
c.	Ez dago disko-diagrama horiek kontrol-agenteei emateko betebeharririk.
d.	Arau-hauste larria.

80.	Si, en una inspección en carretera, el conductor se niega a entregar los discos-diagrama obligados a llevar en el vehículo al agente de control, ¿qué tipo de infracción estaría cometiendo?
a.	Una infracción muy grave, por obstrucción.
b.	Una infracción leve.
c.	No existe obligación de entregar los discos-diagrama a los agentes de control.
d.	Una infracción grave.



Data / Fecha: 2021-09-24

Bidaiariak / Viajeros: B

81. Zer intzidente erregistratzen du takografoak gidari-txartel bat sartzean ibilgailua mugitzen ari dela?	
a.	Ez da intzidenterik erregistratzen.
b.	Txartela sartzea gidatu bitartean.
c.	Txartel ez baliozkoa sartzea.
d.	Txartelaren akats bat erregistratzen da.

81. ¿Qué incidente registra el tacógrafo digital al insertar una tarjeta de conductor con el vehículo en movimiento?	
a.	No registra ningún incidente.
b.	Inserción de tarjeta durante la conducción.
c.	Inserción de tarjeta no válida.
d.	Registra un fallo de la tarjeta.

82. Motorraren biraketa-kopuruaren eta gurpil eragileen biraketa-kopuruaren arteko erlazioa aldatzeko aukera ematen duen engranaje-serie batez osatutako mekanismoa da:	
a.	frikziozko enbragea.
b.	enbrage hidraulikoa.
c.	palierra.
d.	abiadura kaxa.

82. El mecanismo formado por una serie de engranajes que permite variar la relación entre el número de revoluciones del motor y el número de revoluciones de las ruedas motrices es:	
a.	el embrague de fricción.
b.	el embrague hidráulico.
c.	el palier.
d.	la caja de velocidades.

83. Hauetako zein faktoreren mende ez dago potentzia-demanda gurpiletan?	
a.	Ibilgailuaren tara eta garraiatzen den zamaren mende.
b.	Ibilgailuaren segurtasun pasiboaren mende.
c.	Ibilgailuaren abiaduraren mende.
d.	Zirkulatzen den bidearen profilaren mende.

83. ¿De cuál de los siguientes factores no depende la demanda de potencia en las ruedas?	
a.	De la tara del vehículo y de la carga transportada.
b.	De la seguridad pasiva del vehículo.
c.	De la velocidad del vehículo.
d.	Del perfil de la vía por la que se circula.

84. Zoru baxuko autobus batek:	
a.	Gutxienez, azaleraren % 50 zutikako bidaiarientzat dauka, mailarik gabe.
b.	Gutxienez, azaleraren % 40 zutikako bidaiarientzat dauka, mailarik gabe.
c.	Gutxienez, azaleraren % 35 zutikako bidaiarientzat dauka, mailarik gabe.
d.	Gutxienez, azaleraren % 25 zutikako bidaiarientzat dauka, mailarik gabe.

84. Un autobús de piso bajo:	
a.	tiene, al menos, el 50% de la superficie disponible para viajeros de pie sin escalones.
b.	tiene, al menos, el 40% de la superficie disponible para viajeros de pie sin escalones.
c.	tiene, al menos, el 35% de la superficie disponible para viajeros de pie sin escalones.
d.	tiene, al menos, el 25% de la superficie disponible para viajeros de pie sin escalones.

85. Gidari-txartelak bildu ahal ditzake hutsegiteei buruzko datuak?	
a.	Bai, baina bereak bakarrik.
b.	Bai, baina takografoarenak bakarrik.
c.	Bai, bereak eta takografoarenak.
d.	Ez.

85. ¿Puede la tarjeta de conductor almacenar datos sobre fallos?	
a.	Sí, pero sólo de ella misma.
b.	Sí, pero sólo del tacógrafo.
c.	Sí, tanto de ella misma como del tacógrafo.
d.	No.

86.. Gidatzean, nekeak eta logurak eragina izan al dezakete erreakzionatzeko denboran?	
a.	Inoiz ez.
b.	Bai, handitu egiten du.
c.	Bai, gutxitu egiten du.
d.	Nekeak bai, logurak ez.

86. ¿La fatiga y el sueño pueden incidir en el tiempo de reacción durante la conducción?	
a.	Nunca.
b.	Sí, lo aumenta.
c.	Sí, lo disminuye.
d.	La fatiga sí, el sueño no.

87. Zer izen du birgrabatu daitekeen pneumatiko batek?	
a.	Regroovable.
b.	I+D.
c.	R+E.
d.	Reinforced.

87. ¿Cómo se denomina un neumático que se puede regrabar?	
a.	Regroovable.
b.	I+D.
c.	R+E.
d.	Reinforced.

88. Errekuntza-motor baten elikatze-sistemaren aire-iragazkia aldian-aldian aldatu behar da. Zer gertatuko litzateke aldatuko ez balitz?	
a.	Ke zuri gehiago aterako litzateke ihesetik.
b.	Erregaiaren kontsumoak gora egingo luke.
c.	Iheseko gas toxikoen kopurua murriztuko litzateke.
d.	Motorraren potentzia gehiegi handituko litzateke.

88. El filtro del aire del sistema de alimentación de un motor de combustión debe sustituirse periódicamente, ¿qué sucedería si no se hiciera?	
a.	Saldría más cantidad de humo blanco por el escape.
b.	Aumentaría el consumo de carburante.
c.	Se reduciría la cantidad de gases tóxicos del escape.
d.	Aumentaría excesivamente la potencia del motor.

89. Gidariaz kanpoko zer faktorek eragiten diote arretari eta distrakzioak eragin ditzakete?	
a.	Nekeak eta logurak.
b.	Adin aurreratua.
c.	Egoera psikologiko iragankorrek.
d.	Ibilgailuaren barruko tenperaturak.

89. ¿Qué factores externos al conductor afectan a la atención y pueden producir distracciones?	
a.	Fatiga y somnolencia.
b.	Edad avanzada.
c.	Estados psicológicos transitorios.
d.	Temperatura interior del vehículo.

90. Muineko zer lesio da gorputz-adar eta enbor guztietan funtzio motor guztiak galtzea?	
a.	Koma begetatiboa.
b.	Tetraplegia.
c.	Desgaitasun larria.
d.	Paraplegia.

90. ¿Qué lesión medular consiste en la pérdida de funciones motoras en todas las extremidades y el tronco?	
a.	Coma vegetativo.
b.	Tetraplejia.
c.	Discapacidad severa.
d.	Paraplejia.



Data / Fecha: 2021-09-24

Bidaiariak / Viajeros: B

91. Nondik pasa behar du segurtasun uhalaren goiko aldeak?	
a.	Sorbaldatik.
b.	Lepotik.
c.	Sabelaldetik.
d.	Pelbisaldetik.

91. ¿Por dónde debe pasar la parte alta del cinturón de seguridad?	
a.	Por el hombro.
b.	Por el cuello.
c.	Por el abdomen.
d.	Por la zona pélvica.

92. Zerk eragin dezake pneumatikoak modu desberdinean higitzea?	
a.	Hagunak zikin egoteak.
b.	Pneumatikoen presioa eskasa izateak.
c.	Abiadura handitzeak.
d.	Azelerazioa gutxitzeak.

92. ¿Qué puede hacer que los neumáticos se desgasten de forma desigual?	
a.	Que las llantas estén sucias.
b.	Que la presión de los neumáticos sea deficiente.
c.	Un aumento de la velocidad.
d.	Una disminución de la aceleración.

93. Abiadura engratuan zirkulatuz, azeleratu eta motorraren birak igotzen badira baina gurpilenak ez, zer esan nahi du?	
a.	Enbragearen olio oso likatsua dela.
b.	Enbragearen olio ez dela nahikoa likatsua.
c.	Enbrageak patinatzen duela.
d.	Gurpil eragileen errodamenduak akatsak dituela.

93. Si, circulando con una velocidad engranada, acelera y el motor sube de vueltas pero las ruedas no lo hacen, ¿qué significa?	
a.	Que el aceite del embrague es muy viscoso.
b.	Que el aceite del embrague es poco viscoso.
c.	Que el embrague patina.
d.	Que el rodamiento de las ruedas motrices está defectuoso.

94. Non doa konektatuta minus ikurra daraman bateriaren bornea?	
a.	Masara.
b.	Energiara.
c.	Alternadorera.
d.	Korrontera.

94. ¿Dónde va conectado el borne de la batería que lleva el signo menos?	
a.	A masa.
b.	A energía.
c.	Al alternador.
d.	A corriente.

95. Ibilgailu astun bat 70 km/h-ko tarte lau batean badabil, zer martxa erlazioarekin kontsumituko du erregai gehiago?	
a.	Martxaren bosgarren erlazioan.
b.	Martxaren seigarren erlazioan.
c.	Martxaren zazpigarren erlazioan.
d.	Martxako zortzigarren erlazioan.

95. Si un vehículo pesado circula por un tramo llano a 70 km/h, ¿con qué relación de marcha consumirá más carburante?	
a.	En quinta relación de marcha.
b.	En sexta relación de marcha.
c.	En séptima relación de marcha.
d.	En octava relación de marcha.

96.	Balazta-sistema pneumatikoaren sistemaren zein elementuk banatzen du biltegitratze-galdaratxoetako aire konprimitua?
a.	Lau bideko balbula.
b.	Konpresorea.
c.	Deskarga azkarreko balbula.
d.	Pasoko balbula.

96.	¿Qué elemento del sistema neumático de frenos se encarga de distribuir el aire comprimido de los calderines de almacenaje?
a.	La válvula de cuatro vías.
b.	El compresor.
c.	La válvula de descarga rápida.
d.	La válvula de paso.

97.	Herri barruan dagoen bide zirkular edo biribilgune batean, non errei bat baino gehiago dauden martxaren noranzko bererako errreserbatuta, nondik zirkulatu behar da ibilgailu automobil batekin?
a.	Eskuineko erreitik, nolahi ere.
b.	Ezkerreko erreitik, nolahi ere.
c.	Erdiko erreitik, beti.
d.	Bere helmugarako ondoen komeni zaionetik, baldin eta beste ibilgailuen zirkulaziorako oztopo ez bada.

97.	En una vía circular o glorieta situada dentro de poblado con más de un carril reservado para el mismo sentido de la marcha, ¿por dónde se deberá circular con un vehículo automóvil?
a.	Por el carril de la derecha, en todo caso.
b.	Por el carril de la izquierda, en todo caso.
c.	Por el carril central, en todo caso.
d.	Por el que mejor convenga a su destino, siempre que no sea obstáculo a la circulación de los demás vehículos.

98.	Istripuetan, zein da heriotzen ehunekorik handiena dagoen unea estatistiken arabera?
a.	Istripuan bertan.
b.	Hurrengo 2 orduetan.
c.	2 egunera.
d.	Hurrengo 2 hilabeteetan.

98.	En los accidentes, ¿cuál es el momento en el que hay más porcentaje de muertes según las estadísticas?
a.	En el propio accidente.
b.	En las 2 próximas horas.
c.	A los 2 días.
d.	En los 2 siguientes meses.

99.	Zein da lan istripuen arrazoi nagusia garraioko langileentzat?
a.	Trafiko istripuetan esku hartzea.
b.	Ikuspen urria gidatzeko postuan.
c.	Kable eta entxufe akastunak.
d.	Konexio desegokiak.

99.	¿Cuál es la principal causa de siniestralidad laboral para los trabajadores del transporte?
a.	La intervención en accidentes de tráfico.
b.	La escasa visibilidad en el puesto de conducción.
c.	Cables y enchufes defectuosos.
d.	Conexiones inadecuadas.

100.	Motor baten potentzia honela neur daiteke:
a.	lurrun zaldiak.
b.	zaldi fiskalak
c.	metroak segundoko.
d.	metroak orduko.

100.	La potencia de un motor se puede medir en:
a.	caballos de vapor.
b.	caballos fiscales.
c.	metros por segundo.
d.	metros por hora.



Data / Fecha: 2021-09-24

Bidaiariak / Viajeros: B

101. Bidaiarien barneko eta nazioarteko garraioak honen arabera sailkatzen dira:	
a.	haien eremua.
b.	haien xedea.
c.	haien xedearen eta haien araubide juridikoaren espezifikotasuna.
d.	haien izaera.

101. La clasificación de los transportes de viajeros en interiores e internacionales es una clasificación en función de:	
a.	su ámbito.
b.	su objeto.
c.	la especificidad de su objeto y su régimen jurídico.
d.	su naturaleza.

102. Fading fenomenoa errazago gertatzen da:	
a.	goranzko maldetan.
b.	beheranzko maldetan.
c.	lauan.
d.	autobideetan.

102. El fenómeno fading es más fácil que se produzca en:	
a.	pendientes ascendentes.
b.	pendientes descendentes.
c.	llano.
d.	autopistas.

103. Zein da banaketa-sistemaren misioa?	
a.	Sartu eta ihes egiteko balbulak irekitzea eta ixtea.
b.	Sartzeko balbulak bakarrik irekitzea eta ixtea.
c.	Ihes egiteko balbulak bakarrik irekitzea eta ixtea.
d.	Balbulak gurpilen mugimenduarekin sinkronizatzea.

103. ¿Cuál es la misión del sistema de distribución?	
a.	Abrir y cerrar las válvulas de admisión y escape.
b.	Abrir y cerrar las válvulas de admisión solamente.
c.	Abrir y cerrar las válvulas de escape solamente.
d.	Sincronizar las válvulas con el movimiento de las ruedas.

